

EGE

IRAUNKORTASUN-
TXOSTENAREN
LABURPENA **2019**



Txosten hau sakontzat egiaztatu du AENOREk, GRI Standards eta 11/2018 legea, abenduaren 28koa, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoa, ezartzearen bidez.



JASANGARRITASUNA

2019a izan da jasangarritasunak finantza-sektorearen pentsamoldea eraldatu duen urtea. Inflexio-puntu bat gertatu da bai bankuen alorreko araugintzan, bai sektoreko ekimenen bidez eta bai inbertsio gizartearekiko arduratsuarekin zerikusia duen orotan. Jarduerak gizartean duen eragina, gobernamendu korporatibo ona eta, bereziki, finantzek krisi klimatikoaren aurkako borrokari egiten dioten ekarpena protagonistak dira, gaur egun, agenda, ekimen eta proiektuetan.

Ondorengo orrialdeotan, LABORAL Kutxak etorkizun jasangarriagoa lortzeko 2019an zehar egindako ekarpenaren berri eman nahi dugu.

2022ra arte gidatuko gaituen gogoeta egin dugu 2019an. Horren arabera, LABORAL Kutxaren elementu estrategikotzat hartu dugu jasangarritasuna.

Gogoetaren ondorioz, **jasangarritasunaren arloko 10 helburu neurgarri lortzeko konpromisoa hartu dugu.**

ESTRATEGIA

1. Entitatearen estrategian jasangarritasun-irizpideak txertatzea.

INGURUMENA

2. Paper-kontsumoa % 30 murriztea, gure jardueran erabiltzen dugun baliabide nagusia baita.
3. LABORAL Kutxak atmosferara isurtzen duen CO2a % 75 jaistea, karbono-aztarna minimizatuz.

PRODUKTUA

4. Inbertsio gizartearekiko arduratsuari lotutako irizpideak aplikatzea Gestoreak, aseguru-etxeek eta Altxortegiak gestionatutako aktiboen % 100ean eta arriskuak ematean.
5. Linea edo produktu bereziak sortzea ekonomia eta kontsumo jasangarri edo eraginkorra finantzatzeko (finantzaketa berdea).

BERDINTASUNA

6. Epealdiaren amaieran, emakumeek LABORAL Kutxaren zuzendaritza-postuen heren bat betetzea gutxienez.
7. Gizonen eta emakumeen batez besteko lan-indizeen arteko aldea (antzinatasuna barne hartuta) % 10etik beherakoa izatea.


GIZARTEA

8. Gure irabazietatik 75 milioi euro (metatuak) gizartera bideratzea.
9. 2.000 pertsonaren autoenplegua sustatzea Gaztenpresa Fundazioaren bidez, 1.200 negozio-idea gauzatzeko lagunduz, abian jartzen direnetik finkatu arte, finantzaketa eta negozio-plana barne hartuta.

HORNITZAILEAK

10. Gure enpresa hornitzaileei egiten dizkiegun erosketen % 40 gertuko enpresei egitea.


NORENA DA LABORAL KUTXA?



KAPITAL SOZIALA 2019-12-31N

759,6 M€

- Lan-bazkideak
- Bezeroak - Pertsona fisikoak
- Elkartutako kooperatibak
- Bazkide laguntzaileak (erretiratuak)



➤ NAZIO BATUEN BANKA ARDURATSUAREN PRINTZPIOAK SORTU ETA SINATU ZITUZTEN 130 BANKUETAKO BAT IZAN GINEN JOAN DEN IRAILEAN

Ekimen hori erreferentzia izango da sektorean. Helburua: finantza-sistemaren konpromisoa eta erantzukizuna zehaztea, etorkizun jasangarriaren alde egiteko, Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJHekin) eta klima-aldaketaren inguruko Parisko Hitzarmenekin bat. Printzipio horiek etorkizuneko banku-sistema jasangarrirako esparrua sortzen dute, eta gizarteari nolako ekarpen positiboa egiten dion erakusten.



UNEP
FINANCE
INITIATIVE

PRINCIPLES FOR
RESPONSIBLE
BANKING

NAZIO BATUEN BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOAK




1. Lerrokatzea. Eraginik handiena dugun arloetara bideratuko ditugu gure ahaleginak, eta gure estrategia komertziala gizabanakoen beharrekin eta gizartearen helburuekin lerrokatuko dugu, horiekin koherentea izan dadin eta horiek betetzen lagun dezan.



2. Eragina. Gure eragin positiboak handitu eta negatiboak txikitu egingo ditugu, eta gure jarduera, produktu eta zerbitzuen ondorioz pertsonentzat eta ingurumenarentzat sortzen ditugun arriskuak kudeatuko ditugu.



3. Bezeroak eta kontsumitzaileak. Jardunbide jasagarriak sustatuko ditugu, baita oraingo zein geroko belaunaldientzat aberastasun partekatua ekarriko duten jarduera ekonomikoak ere.



4. Alderdi interesdunak. Alderdi interesdunei kontsultatu, eta haiekin parte hartu eta lankidetzan jardungo dugu modu proaktiboan, gizartearen helburuak betetzeko.



5. Gobernantza eta helburuen ezarpena. Helburu horiek gobernu eraginkorraren eta banku-kultura arduratsuaren bidez ezarriko ditugu, anbizioa eta erantzukizuna erakutsiz.



6. Gardentasuna eta erantzukizuna. Printzipio horien ezarpena aldi berean berrikusiko dugu, eta gardenak eta arduratsuak izango gara geure eragin positibo eta negatiboetan nahiz gizartearen helburuak betetzeko egiten dugun ekarpenean.

A hand holding a glowing lightbulb in a field of tall grass at sunset. The background is a soft, golden glow from the setting sun, with the grasses in the foreground and middle ground catching the light. The overall mood is hopeful and sustainable.

1. JASANGARRITASUNA ETA BEZEROAK

PRODUKTU ARDURATSUAK

TXARTELAK

52.670 €

Medicus Mundira, Caritasera eta Ikastolen Elkartera bideratutako zenbatekoa, Affinity txartelen bidez.

KONTUA

13.834 €

Nazioarteko lankidetzaproiektuetarako (Zaporeak, Mundukide, Alboan eta Medicus Mundi) emandako zenbatekoa, SLK libretaren bidez.

LABORAL KUTXA KONPROMISO IF INBERTSIO-FONDOA

Inbertsio gizartearekiko arduratsuaren bidean aurrera egiteko asmoari helduta, gure bezeroek fondo etiko eta solidario hau harpidetzeko aukera dute. Ezaugarri hauek ditu:

- Inbertsioak aukeratzeko orduan, **ingurumenari, gizarteari eta korporazioaren gobernamentu onari lotutako irizpideak hartzen ditu kontuan.**

- **Solidarioa da;** izan ere, bezeroei kobratzen dien gestio-komisioaren zati handi bat hiru GKEri ematen die LABORAL Kutxak (bezeroak aukeratzeko du hiru horietatik zeini).

2019an, fondo horrek **44.155 €** bideratu zituen hiru GKE hauetara:



Elizaren gizarte- eta karitate-erakunde horrek arreta eskaintzen die bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonei, eta gizarteratzen laguntzen die, bizimodu duina izan dezaten. Horretarako, egoera bidegabeak salatzen ditu eta pertsona guztien eskubideen alde egiten du lan.



Medikuntza garatzea eta osasuna zein medikuzerbitzuak sustatzea dira erakunde horren xedeak.



Garapenerako lankidetzako GKEa da. Mondragoneko esperientzia kooperatiboa partekatzen du eta produkzioaren alorreko egitarauak sustatzen ditu, pertsonen ahalmenak sendotuta eta lan-aukerak sortuta.

Gure bizimoduaren digitalizazio geldiezina dela eta, ingurune berrira egokituz joateko ahalegina egin behar du LABORAL Kutxak. Baina, aldi berean, pribatutasunaren babesarekin eta datuen eta eragiketen segurtasunarekin lotutako arriskuak eta kezkek ere azaldu dira.

Arrisku horien aurkako babesa hobeto bermatzearren, Datuen Babeserako Batzordea sortu da 2019an.



ZERBITZUAREN KALITATEA

Enpresa garen aldetik bezeroei zerbitzu-kalitate bikaina eskaintzea da gure helburuetako bat. Merkatuko azterketa independenteen arabera, sektorean lider izaten jarraitzen dugu.



	2016	2017	2018	2019
Banco Mediolanum	-	-	-	8.35
Ing Direct	8.26	8.36	8.21	8.06
Banca March	-	7.99	8.03	8.04
Bankinter	7.44	7.47	7.67	7.75
LABORAL Kutxa	7.69	7.72	7.83	7.73
Ibercaja	7.34	7.68	7.53	7.58
Caixabank	7.52	7.61	7.54	7.51
Grupo Coop. Cajamar	7.64	7.63	7.57	7.50
BBVA	7.51	7.52	7.65	7.48
Bankia	6.79	7.08	7.16	7.41
Abanca	7.45	7.32	7.35	7.41
Kutxabank	7.26	7.32	7.30	7.40
Banco Sabadell	7.43	7.49	7.47	7.32
Santander	7.22	7.04	7.22	7.29
Deutsche Bank	7.38	7.41	7.43	7.26
Liberbank	6.93	6.83	7.10	7.17
Unicaja Banco	7.17	7.16	7.25	7.07
Sektorea	7.33	7.39	7.45	7.48

Iturria: STIGAk Erakundearekiko Gogobetetasun Globalari buruz 2019an egindako azterlana.

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA

LABORAL Kutxaren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak bezeroek aurkeztutako kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzuten die. Aurreko urteko datuekin alderatuta, txikitu egin da zerbitzuaren jarduera. Hona hemen zerbitzu horren emaitzak:

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua	2018	2019
Irekitako espedienteak	9.121	6.563
Eskatutako zenbatekoak (mila €-kotan)	1.671	1.218



BULEGOEN BANAKETA GEOGRAFIKOA



■ LKren Partikularren Bulegoak

■ LKren Enpresen Bulegoak

■ Lagun Aroren bitartekaritza-bulegoak

A high-angle photograph of a group of people standing in a circle on a grassy area with fallen leaves. Their hands are stacked on top of each other in the center, symbolizing teamwork and unity. The image is overlaid with a large, semi-transparent, textured gold shape in the top-left corner and a dark, semi-transparent shape in the bottom-right corner. The text '2. GIZARTEA' is centered over the hands.

2. GIZARTEA

Kooperatiba bat gara eta gure emaitza banagarrien % 25 gizartean banatzen dugu zuzenean.

NOLA EGITEN DUGU?

LABORAL KUTXAN BERRIZ INBERTITUTAKOA

% 50 Erreserbetara

% 25 Kapitalera

GIZARTEARI ITZULITAKOA

% 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora

% 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialera



Interesgarriak diren proiektuen finantzaketa
EKONOMIA ETA GIZARTEA



PRESTAKUNTZA



ENPLEGUA SORTZEA

NOLA EGIN DIOGU EKARPEN HORI GIZARTEARI 2019AN?

Kontzeptua	Mila €-kotan
Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez)	14.227
Kooperatiben sustapena, MONDRAGONen bidez	6.593
Ekintzailtza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (Gaztenpresa Fundazioa)	331
Kultura-jarduerak eta bestelakoak	845
Euskararen eta euskal kulturaren sustapena	703
Laguntza-erakundeak eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak	630
Nekazaritzako elikagaien sektorea	105
Guztira	23.437

> **23 M€**
baino gehiago
 gizarteari egindako ekarpena 2019an

Halaber, LABORAL Kutxak jarduera burutzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

ZERGAK ETA TRIBUTUAK (MILA €-KOTAN) SZ, BEZ, OHZ, EJZ	2018	2019
Guztira	21.209	26.760

MONDRAGON

LABORAL Kutxa **MONDRAGON**eko kidea da, hau da, helburu ekonomikoak ez ezik, enpresaren jabea den plantillaren partaidetza eta autogestioa ere bultzatzen duten kooperatiba bazkidez osatutako talde bateko kidea.

2019an, LABORAL Kutxak bere emaitzetatik ia **22 milioi euro** bideratu zituen Taldeari laguntzera, hain zuzen ere lanpostu berriak sortu eta daudenak finkatzeko eta hezkuntza- zein ikerkuntza-zentroei laguntzeko.



MILA EUROKOTAN	2018	2019
Ekarpenak itzultzea	20.060	21.786



GAZTENPRESA FUNDAZIOA

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da Gaztenpresa. LABORAL Kutxaren gizarte-lanean txertatuta dago, eta enpresak eratuz enplegua sortu eta sendotuko duten ekimenak eta ekintzak sustatzea du helburu.

LABORAL Kutxak finantzatzen du enpresa-sorrera, MONDRAGON Korporazioaren, Eusko Jaurlaritzaren (Lanbideren) eta Europako Gizarte Funtsaren laguntzarekin.

2019an lagundutako proiektuek, bideragarritasun-fasea gainditutakoan, hauek sortu dituzte:

> 405

MIKROENPRESA

> 787

LANPOSTU



Kirolak, kultura, gizarte-ekintza, euskara...

Ikusi nahi al dituzu LABORAL Kutxak 2019an babestutako ekimen guztiak denbora-lerro bakarrean?

**IKUSI BABESTUTAKO
EKIMENAK**






3. GURE PERTSONAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

LABORAL Kutxan 1997tik kezkatzen gaitu berdintasunaren gaiak, eta gure 4. Plana jorratu dugu 2019an.

Urtez urte handituz doa ardurarik handieneko lanpostuetan ari diren emakumeen ehunekoa.

PERTSONAK ADMINISTRAZIO-ORGANO GORENEAN



LABORAL Kutxa


IBEX 35eko enpreetan

Iturria: CNMV

■ Emakumeak

■ Gizonak


EMAKUMEAK ERANTZUKIZUNIK HANDIENeko LANPOSTUETAN (%)



SOLDATA-ARRAKALA

LABORAL Kutxan, lanpostu berdinean soldata bera jasotzen dugu langile guztiok. Gure kasuan, erantzukizun handiko lanpostuetan oraindik gizon gehiago egotea da soldata-arrakalaren arrazoia.

GIZONEN ETA EMAKUMEEN LAN-INDIZEEN ARTEKO ALDEA



Batez besteko lan-indizea



Estatuan


% 27

Iturria: El Economista

SOLDATAK ETA PRESTAKUNTZA

➤ SOLDATA-DESBERDINTASUNA


Ibex 35eko enpresetan, plantillaren batez besteko soldata halako 123 da exekutibo nagusien soldata. LABORAL Kutxan, berriz, 3,6koa da aldea.



➤ PRESTAKUNTZA

Gure plantillaren prestakuntzak hazkunde handia izan zuen 2019an, aurreko urtekoarekin alderatuta.

PRESTAKUNTZA-ORDUAK PERTSONAKO



OSASUN-PLANA

Gure plantillaren osasuna zaintzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko plana jarri dugu abian 2019an. Elikadura, jarduera fisikoa edota laneko osasuna hobetzeko moduak lantzen ditu Zainduzek, pertsonen osasuna eta ongizate fisiko zein emozionala hobetzeko asmoarekin.

zainduz





4.
INGURUMEN-
IRAUNKORTASUNA

2019an, AENORen auditoriaren ostean, ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria berri dugu beste 3 urterako.

KARBONO-AZTARNA

CO₂-aren isuriak % 3,71 murriztu ditugu 2019an. Murrizketa horren zioa da, hein handi batean, Egoitza Nagusiko eraikinak girotzeko energia-iturri berriztagarriak erabiltzea: geotermia eta biomasa.



ISURTZEEN XEHAKAPENA, JATORRIAREN ARABERA. KARBONO-AZTARNA	2018	2019
1. irismena: isurtze zuzenak (gasolioa, propanoa...)	356	160
2. irismena: zeharkako isurtzeak (kontsumo elektrikoa)	3.717	3.616
3. irismena: zeharkako beste isurtze batzuk	963	1.069
Isuritako CO₂ tonak guztira	5.036	4.849

KONTSUMOAK

Jarraitzen dugu gure kontsumo nagusiak murrizten.

2018arekin alderatuta



% 2,72

murriztu dugu
elektrizitate-
kontsumoa



% 7,22


murriztu dugu
paper-kontsumoa



5.

ТОКИКО БАНКА





LABORAL Kutxak presentzia duen lekuan bertan erosten ditu ondasunak eta zerbitzuak. Zehazki:

ONDASUN ETA ZERBITZUEN



% 96,4


tokiko enpresei erosi diegu



6. NEGOZIO IRAUNKORRA

Aurreko orrialdeetan azaldutako guztiak ez du eragozten LABORAL Kutxa enpresa-proiektu bikaina ere izatea.

ENTITATEAREN KOPURU NAGUSIAK



* Bateratuak 2019-12-31n



LABORAL
kutxa